



BARNE-ARAUDIA

EZKURDI K.T. / ARRIPU F.K.

1 ONGI ETORRI KLUBERA

Ongi etorri gure klubera! Kirol Zuzendaritzak eta Zuzendaritza Batzordeak bihotzez opa dizugu pozik eta luzaro egon zaitezela gure artean eta denbora hau lagungarria izan dadila zure garapenerako, bai futbol arloan baita arlo pertsonalean ere.

Klubak egokiro funtzionatzeko, barne-araudi bat dugu: arretaz irakurri behar da eta oso-osorik onartu.

Klubaren barruan, zenbait pertsonak dihardute lanean, eta zenbait zerbitzu dituzu eskura; bada, errespetuz jokatu beharko duzu beti horiekin denekin, eta, aldi berean, zure eskubideak exijitu ahal izango dituzu haien aurrean, araudi honetan jasota dagoen moduan.

2 APLIKAZIO-EREMUA

Araudi hau alderdi hauetan aplikatuko da.

➤ **Pertsonak:**

- Klubean izena emandako kirolariak, izena ematen duten unetik Klubetik atera arte, baita haien gurasoak eta tutoreak ere.
- Klubeko teknikari eta laguntzaile guztiak, baita edozein arrazoiengatik aldi batez Klubaren parte diren pertsona eta erakunde guztiak ere (kolaboratzaileak, babesleak).

➤ **Espazioak:**

- Klubaren beraren kirol-instalazioak.
- Klubetik kanpoko beste edozein kirol-instalazio, lokal, eraikin edo espazio, Klub osoak edo haren atal batek kirol-jardunerako erabilitakoa, aldian behin zein ohikotasunez.

Koordinatzaileek, ordezkariak, entrenatzaileak eta jokalariek zuzen-zuzeneko ardura izango dute haien familiartekoen, lagunek, ezagunek edo haiekin harremana duten edozeinek egindako ekintzen aurrean.

Aipatutako pertsona horietakoren batek araudi honetan jasotako betebeharrak betetzen ez baditu, Klubak eskumena izango du zuzeneko arduradunari egoki diren zigorrak jartzeko; areago, araudia sarri betetzen ez bada edo ez-betetze hori oso larria bada, Klubak taldetik kaleratu ahal izango du pertsona hori.

Araudi hau lanerako bitarteko bat da, jarrera eta jokabide multzo zabal bat adosteko, elkarbizitza eta diziplina izan daitezen Klubaren nondik norakoan ikur.

3 KLUB SENTIPENA

Ibilbide luze eta oparoa dute Ezkurdi KT eta Arripu FK klubek; haien parte zara zu ere, eta, hala, haien izen ona errotzen lagundu behar duzu, zure ekintza, irudi eta jarreraren bidez.

Klubaren kide zara, eta harrotasunez bizitzeko sentipena da hori; harrotasunez bai, eta erantzukizunez ere bai. Klubeko kide izanda, betebeharrak batzuk dituzu eta eskubide batzuk ere bai.

Guztion artean ari gara egunez egun Kluba sendotzen. Arian-arian indartzen ari gure kluba, bai kirolaren ikuspegitik, bai ikuspegi ekonomiko eta sozialetik. Gure funtzioa zeinahi dela ere, ibilbide horretan lagundu behar dugu, ahalik eta indar handienaz:

- ERRESPETUZ jokatura gure harreman guztietan: taldekideak, entrenatzaileak, jokalaria, arbitroak, zaleak, zuzendaritzako kideak eta abar.
- ERRESPETUZ hartuta instalazio eta materialak guztiak, gureak izan, zein beste klub edo erakunde batzuetakoak izan.
- ERRESPETUZ hartuta barne-araudi honetako arauak eta erregelak.

Gure klubeko kideok umiltasunez, profesionaltasunez, zintzotasunez eta gogotsu jardun behar dugu. Ohitura onak izan behar ditugu, egokiro zainduta higieena, elikadura eta atsedena. Bazter utziko ditugu ohitura eta jarrera eskasak, kaltegarriak diren heinean bai norberaren bururako bai klubaren irudirako.

Instituzio baten ordezkari gara eta duintasunez zaindu behar dugu haren irudia, Klubaren irudia gure buruaren isla da eta.

4 KLUBAREN XEDEAK

- Futbol-jokalariairentzako trebakuntza progresiboa: prestakuntza fisikoa, teknikoa, taktikoa eta estrategikoa, oinarri-oinarrizko zenbait kontzeptu ardatz hartuta, hala nola adiskidetasuna, errespetua, edukazioa, kirol-legea eta jarrera ona, bai entrenamendu-saioetan, bai partidetan.
- Entrenatzaileen trebakuntza progresiboa kategoriatan; horretarako, Klubak ahal duen laguntza guztia emango du trebakuntza-ikastaroak egiteko.
- Giro ona sortzea; giro atsegina eta diziplinatua, Klubaren barruan egiten diren jarduerak guztiak modu egokian egin ahal izateko.
- Klubaren masa soziala handitzea: jokalaria, entrenatzaileak, familiarrekoak, bazkideak, Zuzendaritzako kideak, lagunak, zaleak...

5 OSAERA ETA EGITURA

Plan hau gauzatzeko, antolamendu-egitura bat osatu du Klubak. Zuzendaritza Batzordeak, kirol-koordinatzaileak eta entrenatzaileek osatzen dute egitura hori, eta aipatu berri ditugun xedeak lortzea da haien helburua, zenbait jardunbide beteta. Eta, horretarako, oinarrizko erantzukizun batzuk dituzte:

- Haien ardurapean diren kide guztien prestakuntza teknikoa eta taktikoa lantzea eta kirol-izaera garatzea.
- Taldeen eta kirolarien kudeaketa, segimendua eta kontrola egitea, kategoria eta adin guztietan.
- Klubaren ordezkari izatea, dagokion federazioaren aurrean.

5.1 KOORDINATZAILEA

Taldeen eta jokalarien kudeaketa, segimendua eta kontrola du helburu nagusi. Kategoria eta adin guztien ardura du, eta arretaz zaintzen du Klubeko jokari guztiguztiek prestakuntza integrala jasotzen dutela. Entrenatzaileek harengana jo dezakete beti, edozein zalantza, ohar, eskaera edo erreklamazio egiteko.

- Klubeko Zuzendaritza Batzordearen akordioaren bidez hautatzen eta kargugabetzen da koordinatzailea, eta presidentek izendatzen eta kargugabetzen du.
- Ezinbestean bete beharrekoak ditu bai araudi honetan ezartzen zaizkion gomendioak eta betebeharrak, baita Klubeko Zuzendaritza Batzordeak agindutakoak ere. Era berean, Zuzendaritza Batzordeak hartutako akordioak ere bete behar ditu, haren eskumenen barruan dauden heinean.
- Klubeko beste edozein kideri edozelako egoeratan eskatzen zaion jokamoldea, errespetua eta neurritasuna izan behar du.
- Arretaz zainduko du bere ardurapeko taldeen lehiaketetako araudiak eta erregelak egokiro errespetatzen eta betetzen direla.
- Bere eskumenen artean dago jokalaria talde batetik beste batera mugitzea arrazoi teknikoak edo kirol-arrazoiak direla-eta; horrez gain, entrenatzaileak kargutik kendu ahal izango ditu, ez badituzte betetzen araudi honen arabera dagozkien erantzukizunak.
- Koordinatzaile-jardunarekin batera, Klubari lotutako beste edozein jarduera ere bete ahal izango du aldi berean.

5.2 ENTRENATZAILEAK

Entrenatzaileek kirol-arloko irakasle-funtzioa betetzen dute Klubean; hala, Klubaren oinarrietan ezarritako hezkuntza- eta kirol-xedeak hartuko dituzte ardatz, beren lana betetzeko. Jokalariekin orpoz orpo lan egiten dutenez, funtsezko eginkizuna betetzen dute jokalariai prestatzeko eta haiekin komunikatzeko. Kirol Zuzendaritzak, koordinatzaileak eta Zuzendaritza Batzordeak erabateko konfiantza dute entrenatzaileengan.

Zuzendaritza Batzordeak aukeratzen ditu entrenatzaileak, Kirol Zuzendaritzaren proposamenez, eta azken horrek izendatzen ditu.

➤ **ESKUBIDEAK**

- Dagozkien funtzioak beteko dituzte beren erantzukizunpeko taldeetan, betiere Klubaren oinarriak errespetatuta.
- Klubaren eta, zehazki, haien ardurapeko gaiei buruzko informazioa jasoko dute egoki den pertsonaren eskutik.
- Klubeko gainerako estamentu eta kideek gizalegez eta errespetuz tratatuko dituzte.
- Klubaren baliabide materialak eta instalazioak erabili ahal izango dituzte, Klubaren xedeak betetzeko.
- Kirol-arloko eskaerak, iradokizunak eta kexak aurkeztu ahal izango dituzte idatziz Klubeko organoen aurrean.

➤ **BETEBEHARRAK**

- Beren ardurapeko jardueren urteko planifikazioa egingo dute, eta, Kirol Zuzendaritzaren oniritzia jaso ostean, programazioa garatu eta beteko dute.
- Beren jardunean, itxura eta jarrera duina eta adeitsua izango dute. Egin beharreko jarduerarako kirol-ekipamendu egokia eramango dute.
- Ezin dute entrenamendu-ordutegirik edo -egunik kendu edo aldatu koordinatzaileari jakinarazi gabe. Arreta emango diete jokalarien galdera eta zalantzei; lan egitera eta ahalegintzera bultzatuko dituzte jokalariai, eta guztion elkarbizitzan lagunduko dute. Jokalarien gurasoen kontsultei kasu egingo diete, jokalariai hezteko betebeharrak horretan elkarrekin jarduteko, nor bere eremuan, eta Zuzendaritza Batzordera bideratuko dituzte kontsulta horiek.
- Klubaren diziiplina-arauak aplikatuko dituzte, beren eskumenen eremuan.
- Klubean egiten diren jardueretan parte hartuko dute.
- Zuzendaritza Batzordean hartutako erabakiak errespetatu eta beteko dituzte.

➤ **ENTRENAMENDUAK**

- Entrenamenduak prestatzeko, entrenamendu-saio bakoitzeko helburuak eta hobekuntza-arloak zehaztuko dituzte.
- Entrenamendua hasi baino lehen iritsiko dira (15 minutu lehenago, gutxienez), materiala prestatu eta jokalariei ongietorria egiteko.
- Entrenamendua zuzentzeko orduan, ahalik eta probetxu handiena aterako diote denborari, jokalariek beren gaitasunak hobetu ditzaten, eta taldearen diziplina mantenduko dute.
- Taldeari esleitutako materiala jaso eta zenbatuko dute entrenamendu-saio bakoitza amaitutakoan (baloiak, petoak...).
- Klubaren materiala eta instalazioak arduraz erabiltzeko jarrera sustatuko dute.
- Aldagelen kontrola egingo dute jokalariai dutxatzen diren bitartean, eta azkeneak amaitu arte itxarongo dute, bai entrenamenduetan bai instalazioen barruan zein kanpoan.
- Jokalariai entrenamenduetara doazen ala ez kontrolatuko dute.

➤ **PARTIDAK**

- Beharrezkoa bada, partidarako deialdiak egingo dituzte partida aurreko entrenamendu-saioan.
- Partidari begira, kontrolpean izango dituzte fitxen eta arropen arloa, ordezkariaren bitartez.
- Jokalari edo guraso guztien telefonoak izango dituzte, lokalizatu ahal izateko.
- Deialdi-orduaren aurretik iritsiko dira, lasaigarria baita hori bai jokalarientzat bai gurasoentzat.
- Jokalariaren bat agertu ez bada edo ezin izan bada lokalizatu, 15 minutuz itxarongo zaio gehienez.
- Partida hasi baino ordu bete lehenago egon behar da joko-zelaian.
- Partida zuzentzeko orduan, jarrera eta hizkera egokia erabiliko dute, kirol-legea sustatzeko eta kirolari bakoitzaren zein taldearen errendimendua hobetzeko.
- Estatistikoki kontrolatuko dute jokaturako minutuak, txartelak, golak eta bestelako gorabeherak —bai entrenatzaileek berek beharrezko irizitakoak, bai Klubeko Kirol Zuzendaritzak adierazitakoak—.
- Aldagelen kontrola egingo dute partidaren ostean, azken jokalaria irten arte.

5.3 JOKALARIAK

➤ **ESKUBIDEAK**

- Jokalariaren eskubidea da bere nortasuna bete-betean garatzeko prestakuntza jasotzea.
- Horretarako, Klubak honako baliabide hauek jarriko ditu haren esku:
 - ✓ Jokalariaren kategoriaren eskakizunekin bat datorren entrenatzaile bat.
 - ✓ Kirol-instalazio egokiak.
 - ✓ Kirol-materiala.

- ✓ Ekipamendua.
- ✓ Kirol-diziplinaren irakaskuntza.
- ✓ Kirol-hezkuntza egokia, prestakuntza integrala jaso dezan kirolariak.

- Kirolari guztien integritate fisiko eta morala eta duintasun pertsonala errespetatu behar da beti, eta ezin zaie inoiz irain fisikorik edo moralik egin.
- Kirolariak Klubaren funtzionamenduan parte har dezakete, talde bakoitzean hautatutako kapitainaren bitartez.
- Klubeko kide guztiek futbolarien eskubideak errespetatuko dituzte, barne-araudi honetan ezartzen den legez.

➤ **ENTRENAMENDUETAKO BETEBEHARRAK**

- Aurrez ezarritako entrenamenduetara joan behar dute, eta, saio horietan, jarrera egokia izango dute, alderdi guztietan hobetzeko eta ikasteko ahalegina eginez.
- Jokalariak entrenatzeko ekipamendu osoa edukiko dute, eta prest egon behar dute entrenamendua garaiz hasteko, puntualtasuna zorrotz zainduta.
- Inork ezin du entrenamendua hasi edo entrenamendutik joan, entrenatzailearen baimena izan gabe.
- Klubeko kirol-materiala eta instalazioak zainduko dituzte, baliabideak behar bezala erabilia.
- Beharrezkoa bada, materiala prestatzen eta jasotzen lagunduko dute, entrenamendu hasieran eta amaieran.
- Entrenamendu-saioan ezin dute jantzita izan ez erlojurik, ez belarritakorik, ez norberarentzat edo gainerakoentzat arriskutsu izan daitekeen beste ezer.
- Klubak adierazitako arropa egokia erabiliko dute.
- Harreman egokia eta adeitsua izango dute taldekideekin.
- Ez dute inor irainduko edo gustu txarreko txantxak egingo; bestela, zigorra jasoko dute.
- Entrenatzailearekin eta Klubeko gainerako kideekin harreman ona izango dute: abegitsua eta errespetuzkoa. Zelaian, adeitsu egingo diete harrera eta agurra kide guztiei, bostekoa emanez.
- Errespetuz hartuko dituzte entrenatzaileen aginduak eta oharrak.
- Jokalaria prest egongo da Klubeko beste talde batera aldatzeko, denboraldi baterako zein behin betiko, kirol-arduradunek hala erabakiz gero.
- Debekatuta dute erretzea eta alkoholdun edariak edatea klubaren jardun-eremuan, zelaian edo Klubaren ardurapean dauden bitartean.
- Ezin da entrenamendu-saioetara huts egin, aurrez entrenatzaileari jakinarazi gabe eta hark oniritzia eman gabe. Bestela, entrenatzaileak egoki irizitako neurriak hartu ahal izango ditu, Klubak ematen dizkion ahalmenen barruan.
- Entrenatzaileak jakinaren gainean egon behar du, jokalariren bat lesionatuta badago, gaixo badago edo egoera fisiko edo animikoa dela-eta ezin badu entrenamenduetan egokiro jardun, eta horren berri emango zaio Kirol Zuzendaritzari.

➤ **PARTIDAK**

- Jokatzeko deialdia jaso duten partida guztietara joan behar dute, entrenatzaileak zehaztutako orduan.
- Kirol-ekipamendua da jokalarien adierazgarri nagusia; jokalariek, bada, jantzita eraman behar dute ekipamendu hori.
- Futbolean aritzeko egoera egokian joan behar dute partidetara. Gorputza zaindu behar dute jokalariek, gorputza baita haien lan-tresna. Beraz, albo batera utziko dituzte kirol-jarduna edo errendimendua kaltetzen edo baldintzatzen duten jarduera eta jokabide guztiak.
- Partidak etxetik kanpo badira, ezingo dira zuzenean beren kabuz zelaira joan entrenatzaileari jakinarazi gabe.
- Jarrera egokia izan behar dute beti, eta sekula ez egin Klubaren edo jokalariaren beraren edo familiartekoen irudia kaltetu dezakeen ekintzarik. Errespetuz hartuko dira arbitroak, aurkariak eta taldekideak, noski.
- Jokalariek garaiz jakinarazi behar dute ezin direla partida batera joan, deialdian beste jokalaria bat sartu ahal izan dadin.
- Jokalari lesionatuek edo deialdian sartu ez direnek taldearen partidetara joan behar dute, entrenatzaileak edo Kirol Zuzendaritzak hala adieraziz gero.
- Txukun jantzita atera behar da partidara: kamisetak praken barrutik sartuta, prakak gerrian, galtzerdiak belaunetaraino igota eta zango-babesak jantzita.
- Ezin da zelaiko aulkian egon kamiseta erantzita, eta ezin da erantzi harik eta aldagelara iritsi arte.
- Zorrotz errespetatu beharrekoak dira entrenatzaileek partidaren hartzen dituzten erabaki guztiak eta ematen dituzten agindu guztiak, eta ez zaie jaramonik egin behar joko-zelaitik kanpo Talde Teknikokoa ez den inork emandako aginduei edo egindako ohar eta iradokizunei. Halakorik eginez gero, berehala ordezkatu da jokalaria hori.
- Partida amaitutakoan, bostekoa eman behar zaie arbitroari eta aurkariei, partida galdu zein irabazi.
- Taldea babestu eta animatu beti. Sekula ez da kritika negatiborik egin behar ez taldeari buruz, ez Klubari edo taldekideei buruz.

5.4 GURASOAK

Jokalari batek Klubean izena ematen duenean, horrek esan gura du gurasoek Klubeko oinarriak eta araudia ezagutzen eta onartzen dituztela eta saiatuko direla beren seme-alabek ere araudi eta oinarri horiek errespetatu dituzten. Araudi honetan jasota daude gurasoen eskubideak eta betebeharrak —eskubide eta betebeharrak horiek berdin-berdin dagozkie jokalariaren tutoreari edo legezko arduradunari, halakorik egonez gero—.

➤ Gurasoen betebeharrak:

- Denboraldi hasieran, behar den informazioa emango diote Klubari: baimenak eta datu identifikatibo eta administratiboak. Ardura hartuko dute Klubari emandako informazioa eguneratuta egon dadin eta informazio hori epe egokian jaso dezan.
- Klubeko beste edozein kideri edozelako egoeratan eskatzen zaion jokamoldea, errespetua eta neurritasuna izan behar dute.
- Ez entrenamenduetan, ez partidetan —ezta atsedendietan ere— ez diete aholkurik edo gomendiorik emango ez jokalariei, ez entrenatzaileari, ardura hori entrenatzailearena baita soil-soilik.
- Klubak hitzartutako eta eskatutako ordainketak egingo dituzte, ezarri den eran eta epeetan. Ordainketaren batean itzulketarik egonez gero, Zuzendaritza Batzordeak fitxa kenduko dio jokalariai, ordaindu beharreko zenbatekoa (gehi dagozkion interesak) ordaindu arte.

➤ Gurasoen eskubideak:

- Guraso guztien integritate fisiko eta morala eta duintasun pertsonala errespetatu behar da beti, eta ezin zaie inoiz irain fisikorik edo moralik egin.
- Gurasoek Klubeko funtzionamenduan parte hartzeko eskubidea dute; horretarako, bozeramaile bat hautatuko dute talde bakoitzean, eta bozeramaile hori bileretara joango da, hala eskatzen diotenean, gurasoen eta Zuzendaritza Batzordearen arteko zubi-lanak egin ditzan..

6 DIZIPLINA-ARAU BIDEA

Araudi hau Klubeko kide guztiek bete behar dute.

Zuzendaritzako batzordekideek, Kirol Zuzendaritzakoek eta entrenatzaileek bereziki berariaz zainduko dute ez dadin gerta araudi honetan jasotako diziplina jokabide okerrik; eta, horretarako, etengabe jardungo dute elkarrekin harremanetan eta elkarlanean.

Gerora har daitezkeen erabakiak gorabehera, entrenatzaileek egokitzat jotzen dituzten neurriak hartu ahal izango dituzte taldeko ordena mantentzeko (entrenatzaileek, ahal dela, aurrez emango diete neurrien berri, bai koordinatzaileari, bai Kirol Zuzendaritzari).

➤ **ARAU-HAUSTEAK**

Hona falten sailkapena:

- Falta arinak:
 - ✓ Justifikatu gabeko puntualtasun-faltak.
 - ✓ Entrenamenduetara eta partidetara behin huts egitea justifikatu gabe.
 - ✓ Jarrera pasiboa izatea entrenamenduetan eta partidetan.
 - ✓ Errespetu edo begirunerik gabe tratatzea taldekideak, entrenatzaileak, arbitroak, aurkariak, publikoa edo jarduerarekin zerikusia duen beste edozein.
 - ✓ Klubaren materiala edo instalazioak txarto erabiltzea.
 - ✓ Diziplina-falta, irain edo ofentsa ez-larriak.
 - ✓ Justifikaziorik gabeko txartel horiak, janzkera desegokia, higie-nehitura desegokia.
 - ✓ Justifikaziorik gabeko edozein ekintza, Klubaren ohiko jarduna arinki eragozten duen heinean.
- Falta larriak:
 - ✓ Entrenamenduetara eta partidetara behin eta berriz huts egitea justifikatu gabe.
 - ✓ Errespetu edo begirunerik gabe tratatzea behin eta berriz eta etengabe taldekideak, entrenatzaileak, arbitroak, aurkariak, publikoa edo jarduerarekin zerikusia duen beste edozein
 - ✓ Kalte larria eragitea Klubaren objektu edo instalazio, material, arropa eta abarretan, horiek txarto erabiltzeagatik.
 - ✓ Jokalari batek, edozein kategoriatan, berea ez den talde baten deialdia jaso —egoera berezi eta justifikatuak direla-eta beharrezkotzat jo delako— eta deialdi horretara ez joatea.
 - ✓ Denboraldi berean falta arinak egitea behin eta berriz.

- ✓ Klubaren ohiko jarduna larriki eragozten duten justifikaziorik gabeko ekintzak egitea.
 - ✓ Justifikaziorik gabeko txartel gorria.
 - ✓ Klubak larritzat jotako beste falta batzuk.
- Falta oso larriak:
 - ✓ Diziplina-falta, irain edo ofentsa oso larriak egitea Klubeko kideen edo beste batzuen kontra, eta, ondorioz, Klubaren irudia kaltetzea.
 - ✓ Fisikoki edo hitzez erasotzea Klubeko kideak, taldekideak, arbitroak, aurkariak, publikoa eta abar.
 - ✓ Bi falta larri baino gehiago metatzea.
 - ✓ Klubak oso larritzat jotako beste falta batzuk.

➤ **ZIGORRAK**

Adierazitako faltak eginez gero, zigor hauek jarriko dira:

- Falta arinak:
 - ✓ Modu pribatuan kargu hartzea.
 - ✓ Idatziz kargu hartzea, gurasoei gertakarien berri emateko.
 - ✓ Klubean lan jakin batzuk egitea entrenamendu-saioetan edo bestelakoetan, astebetez edo bi astez.
- Falta larriak:
 - ✓ Idatziz kargu hartzea, txosten xehe baten bidez, gurasoei gertakarien berri emateko.
 - ✓ Klubean lan jakin batzuk egitea entrenamendu-saioetan edo bestelakoetan, hiru astetik sei atera bitartean.
 - ✓ Kirol-jarduera etenaraztea (entrenamenduak eta partidak) astebete eta lau aste bitartean.
- Falta oso larriak:
 - ✓ Idatziz kargu hartzea, txosten xehe baten bidez, gurasoei gertakarien berri emateko.
 - ✓ Kirol-jarduera etenaraztea (entrenamenduak eta partidak), hilabete batetik hiru hilabetera bitartean edo JOKALARIA TALDETIK BEHIN BETIKO KALERATZEA.
 - ✓ Zuzendaritza Batzordeak jokalaria berriro onartzeko erabakia hartu ahal izango du, jokalaria hala eskatu eta egiaztatzen bada jarrera egokiro aldatu duela.

Honako kide hauek izango dira Zigor Batzordean:

- Klubeko presidentea edo hark eskuordetutako pertsona.
- Zuzendaritzako bi batzordekide.
- Kirol Zuzendaritza.

Zuzendaritza Batzordeak barne-araudi hau onartzen duen egunean jarriko da Barne Araudia indarrean.

Araudiaren aldaketak Zuzendaritza Batzordearen proposamenez onartuko dira.

Ezkurdi K.T. / Arripu F.K.ko Zuzendaritza Batzordea

